

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

## HME-ko aliantzak

Gure kasuan, kamioiak eta motorrak dituen enpresa batekin aliatuko gara. Modu honetan, haiek garraiobideak utziko dizkigute eta guk gure irabazien %15 emango diegu. Honi esker, eskola publikoen janaria kamioiekin jasoko dugu eta motorrekin, aldiz, etxeetako soberakinak.

Beste aliantza bat izango dugu nutrizio enpresa batekin. Hauek elikagaiak aztertuko dituzte eta jangarriak diren ala ez esango dute. Izango ditugun lokal bakoitzeko bi langile kontratatuko ditugu. Baina langile hauei ez diegu soldata bat emango, aliatutako nutrizio empresari gure irabazien %10 emango diegu, eta beraz haiek izango dira langileei soldata eskainiko dietenak.